

Tresna kontzeptualak errealitatea hezkidetzaren ikuspegitik aztertze¹



Irudia: Raquel Gu

“Kalitateko hezkuntzak ahalegina egin behar du heteronormatibitateari aurre egiteko, eta pertsona bakoitza eskola-bizitzaren hasieratik benetan nor den hura izateko”

Alicia de Blasek² LOMLOEk atarikoan³ genero-berdintasunaz eta hezkidetzaz xedatuarekin hasi du bere azalpena:

Legeak genero-berdintasunaren ikuspegia hartzen du hezkidetzaren bidez, eta etapa guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa eta aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua sustatzen ditu.

Sarrera horren ondoren, Alicia de Blasek honako galdera funtsezko hau egin du:

Nola egin hori?

“Hori ez dago legean, eta ez da erraza hori egitea. Lehenik eta behin, sentsibilitatea izan behar da, eta, hori izanda, kontzeptu eta tresna teorikoak behar ditugu gogoeta egiteko; are gehiago, tresna teoriko horiek izanda ere, gero praktikan jarri behar dira. Horregatik, egun, zer egin handia dago legea betetzeko”.

Hartara, ideia batzuk eman ditu zehazki erantzuteko **nola** galderari:

¹ Alicia de Blas García 2022ko otsailaren 24an “Transforma Sarea. Herritartasun Globalerako Hezkuntza Komunitateak XI. Aurrerapen birtualaren” esparruan aurkeztutako hitzaldiaren laburpena.

² Alicia de Blas García, Lehen Hezkuntzako irakasle eta hezkidetzaren eta herritartasun globalaren arloko aditua da. 71 hezkidetzaz proposamenen egilea da: <https://www.fuhem.es/product/71-propuestas-para-educar-con-perspectiva-de-genero/>.

³ Gehiago jakiteko: <https://www.boe.es/boe/dias/2020/12/30/pdfs/BOE-A-2020-17264.pdf>

Lehendabizi, gogoan izan honako hauek:

- Gizakia izaki sexuduna da



Gizakiek sexu ugalketa daukate, eta giza espezieko indibiduo moduan sexuaren, sexualitatearen eta sexu-desberdintasunaren alderdi guztiak bizitzeko moduaren arabera bereizten dira. Desberdinak gara gure sexu biologikoari dagokionez. Gainera, gure identitatearen kontzientzia dugun gizaki moduan, gure desberdintasun sexual biologikoa “genero-identitate afektibo sexuala” delakoaren bidez interpretatzen dugu. Era berean, gizarteak erakusten digunez gizartean gizon eta emakume izaten, eta jokatzeko arau edo mandatu jakin batzuk transmititzen dizkigunez, desberdintasun sexual hori modu desberdinean adierazten dugu, eta hori “genero-adierazpena” da; azkenik, gure desberdintasun sexualaren barruan dago nola adierazten dugun gure desira sexuala, gure afektibitatea, norekin maitemintzen garen, nork erakartzen gaituen, eta pertsona adina orientazio afektibo sexual egon daitezke.

- Genero-desberdintasuna

Desberdintasuna injustizia- eta muga-sorburua da izateko eta garatzeko dauzkagun posibilitateeee dagokienez:

a la desigualdad de género.



Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

Generoaren eraikuntzan sortzen da genero-desberdintasuna, eta emakumeei egokitzen zaienak emakumeak gizonen zerbitzuan eta mendea jartzea eragiten du.

Aliciak bere azalpenean nabarmendutako grafikoak adierazi bezala: “Emakumeek gizonak baino gehiago lan egiten dute, baina ordainik jaso gabe. Gizonak ordaindutako lanordu gehiago egiten dituzte, eta, horrenbestez, emakumeen lanaldia gizonenaren bikoitza da, gure lan-zama osoa askoz handiagoa delako, baina gure diru-sarrerak txikiagoak dira”. Aldi berean, egoera zailak edo krisiak sortzen direnean, pandemia adibidez, aldea askoz handiagoa da, genero-desberdintasunaren barruan eginkizunen banaketa desorekatua delako, eta emakumeei, lehentasunez, biziari eustea eta zaintzea egokitzen zaie.

LA COVID ENSANCHA LA DESIGUALDAD




Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

Egoera horretatik abiatuta, Alicia de Blasek testuinguru batzuk planteatzen ditu, hezkidetzaren ikuspegitik pentsatzen laguntzen dutenak:


❖ Binarismoa

Gure gizartea binarioa da, eta bi “multzotan” kokatzen gaitu: gizonena eta emakumeena. Gainera, bat etorri behar dute sexu biologikoarekin, genero-adierazpenarekin eta orientazio sexualarekin. Binarismo hori dela eta, jaiotzean ezarritakoaren arabera, gizon eta emakume gara, aldatzeko aukera handirik gabe.



Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

Arropa-kate ezagun baten denda bat, gure gizartearen binarismoa erakusten duena



Unibertsitate-ikasketen aukeraketa binarismoaren beste adibide bat da, irudian ikusten den bezala

❖ Heteronormatibitatea

Lehen Hezkuntzako irakasle moduan, Alicia de Blasek honako hau dio: “Hori ikasgeletan ikusten da. Ikasleei, nolabait, ezartzen zaien eredu horretan kokatzen laguntzen diegu, eta eredu hori heteronormatiboa dela esaten dugu”. Hau da, eredu hori nola jokatu esaten diguten mandatuz eta arauz osatuta dago, eta barruan daude genero-arau eta -agindu guztiak, estereotipoekin, jokatzeko arauekin, espero denarekin, eginkizunekin zerikusia duen guztia, bai eta orientazio sexual jakin bat ere, heterosexuala, zeinari buruz arauak esaten baitu halako kanpo-erakuste bat egin behar dela.


“Kalitateko hezkuntzak ahalegina egin behar du heteronormatibitateari aurre egiteko, eta pertsona bakoitza eskola-bizitzaren hasieratik benetan den modukoa izan dadin”.

Eskola-uniformeak dira erreprodukzioaren adibide bat:



Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

Ikasleak estereotipatzeko beste modu bat haiekiko jokabidea eta hizkuntza da, haurrak izendatzeko modua, familiei buruz ari garenean erabiltzen dugun hizkuntza. “Baimenetan ere ez dago lekurik bestelako familia-eredu batentzat”.



Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

❖ Aniztasuna hartzeko hezte

Alde horretatik, Aliciak aniztasun hori hartzeko, aitortzeko eta jasotzeko hezte proposatzen du: “Erakustea da egin beharrekoa”.



Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

❖ Hezte... berezitasuna aintzat hartzeko

Aniztasun hori aintzat hartuz hezteaz gain, honako hau dio: “Pertsona bakoitzak eta ezagutzen dugun guztiok norberak daukan berezitasuna aintzat hartzeko hezi behar da; espero behar da pertsona bakoitzak bere berezitasuna agertzea, eta harrera egin behar zaio”.

- ❖ Era berean, Aliciak dio gure sistema, **binarioa izateaz gain, oso hierarkizatuta dagoela**, halako eran non emakumeei dagokiena oso maila apalean baitago, gizonei dagokienaren mende.

❖ Androzentrismoa

Gure sistemaren binarismoak hezkuntzan generoaz hitz egiteko funtsezkoa den beste kontzeptu bat dakar, androzentrismoa: “Neskatoek, haztean, noiznahi ikusten dituzte gizonak telebistan, leku guztietan, hitz egiten, beti protagonistak; baina neskatoek eta mutikoek ez dituzte hainbeste emakume ikusten, eta horrek eragina du nork agintzen duen bereiztean, balio soziala ematean eta ongizate-egoera material batez gozatzean, bizi garen munduan gizonak oraindik ere erdigunean daudelako”.

❖ Ikusezintasuna

Emakumeen ikusezintasunak eragina dauka gure eraikuntza mentalean eta errealitatea ulertzen dugun moduan, eta horren adibidea da giza eboluzioa; izan ere, horretaz “gizonaren” eboluzioa balitz bezala mintzatzen gara. Testu liburuetan, esaterako, gizonak oraindik ere neurritz gain agertzen dira, eta emakumeak, berriz, ikusgaitzak dira.

❖ Emakumeak eta neskatoak aintzat hartzeko hezte

“Presentzia handiagoa izan dezaten subjektu historiko moduan, eta aintzat hartuak izan daitezen eboluzioa izan duen eta historiako aldi guzti-guztiak bizi izan dituen gizadiaren erdia baitira, bai eta emakumeen gorputzari dagokionez ere, absente nagusia delako giza gorputzaren ikaskuntzaz den bezainbatean”.




Alicia de Blas García. Maestra de Primaria.

❖ Zaintzen ikusezintasuna

Lanaren banaketa sexualari lotuta, zaintza-lanak ikastetxeetan ere ikusezinak dira, eta, adibidez, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako liburu batean, biztanleria “aktiboaz” eta “ez-aktiboaz” aritzean, biztanle ez-aktiboak etxekoandreak direla zehazten da.

❖ Zaintza-lanen feminizazioa

Ikusezintasunak feminizaziora garamatza, kontzeptu-mailan egiten den rolen banaketara, liburuetako adibideetatik hasi eta ikastetxeak garbitzeaz edo jangelez arduratzen direnenganaino, zeinen artean gehienak emakumeak baitira, eta gehien-gehienak egoera prekarioan baitaude.




❖ Heztea... autonomiarako eta erantzunkidetasunerako

Aliciak, hitzaldia amaitzeko, hau esan du: “Horren aurrean, autonomiaren eta erantzunkidetasunaren alde lan egiteko beste curriculum-ildo handi bat izan behar da, erakutsi dezan zaintza-lanak egiten, eta zaintzea kontsolatzea dela, baita entzutea ere, eta oso lan garrantzitsuak direla; aurrera egin dezagun hezkuntza emozionalean, baina, era berean, erakutsi dezan etxea garbitzea ere zaintzea dela, baita arropa konpontzea ere, eta zapatak lotzea, beste inork lotu behar izan ez ditzan, eta nire motxila eramatea ere bai, eta hori guztia ikastetxeetan ere ikasi behar da



[Ikusi hitzaldiaren bideoa, 29. minutura arte](#)



Irudia: Leticia Navarro